



37/2020 ALKATETZA DEKRETUA

Albizturren, 2020ko apirilaren 28a, eguerdiko hamabietan, udaletxeko bulego ofizialean, eta neronek, Oihan Ostolaza Arruabarrena, korporazioko idazkariak lagunduta, Iñaki Orbegozo Arrospide bere gain hartu du alkatetza eta zera dio:

Ikusirik, urtero moduan Albizturko udalak udaleku irekiak antolatu nahi dituela nahiz eta momentu zehatz honetan oso argi egon ez, egiterik izango diren edo ez badaezpada deialdia luzatu nahi da.

Ikusirik hiru begirale behar direla lan hori burutu ahal izateko.

Kontuan harturik udal honek ez duela inolako lan poltsarik lanpostu horiek betetzeko.

Kontuan harturik ohiko administrazio jakinarazpen moduak epez luzatzen direla.

Indarrean dagoen Toki Araubidea arautzen duen legediak alkatetzari ematen dizkidan eskuduntzak erabiliz,

ERABAKI DUT

Lehena.- Albizturko Udalak antolatutako udaleku irekietan lan egiteko 3 begiraleren kontratazio espediente onartzea. Ondorengo baldintzekin:

Baldintzak:

- 18 urte beteta edukitzea
- BALORAZIO IRIZPIDEAK ETA PUNTUAZIOA
 - Euskara egoki menperatzea. PL 2a gutxienez izatea. Honela ez bada burutuko den elkarrizketan frogatu beharko du menperatze maila.
 - Herriaren ezagutza baloratuko da.
 - 2 puntu gehienez. Elkarrizketa bidez baloratuko da.
 - Begirale ikasketak edota hezkuntzarekin zer ikusia duten ikasketak.
 - Begirale ikastaroa izatea: 3 puntu
 - Hezkuntzarekin zerikusia duten ikasketak amaituta: 2 puntu.
 - Eskarmentua izatea.
 - Udaleku ekitaldi bakoitzeko puntu bat. Gehienez 5 puntu



ALBIZTURKO UDALA (Gipuzkoa)
AYUNTAMIENTO DE ALBIZTUR

2020IPOL0021

Bigarrena.- Udal iragarki taulan, udal web orrian eta lanbiden honen berri ematea, lanbide bidez bidali beharko direlarik eskaerak, izen emateko epea maiatzaren 15a bitartekoa izango delarik.

Erabaki hau behin betikoa da eta amaiera ematen dio administrazio bideari. Interesatuek honen aurka, zuzenean administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkez dezakete Administrazioarekiko Auzietako Donostiako Epaitegietan, jakinarazpenaren biharamunetik hasita bi hilabeteko epean.

Hala ere, partikularrek aukera dute horren aurretik berraztertzeko hautazko errekurtsua aurkezteko alkatetza honi, jakinarazpenaren biharamunetik hasita hilabeteko epean. Hori eginez gero, ezingo da administrazioarekiko auzi errekurtsorik aurkeztu harik eta berraztertzeoaren berariazko ebazpena eman edo ustezko ezespena gertatu arte. Dena dela, egoki iritzitako beste edozein errekurtsu aurkez daiteke.

Iñaki Orbegozo Arrospide
Alkatea

Oihan Ostolaza Arruabarrena
Idazkari Kontu-hartzailea